

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK**

Gure kasuan, gure produktuak funtziona dezan eta **baliabideak eskuratzeko** behar ditugun **bazkide eta hornitzaile nagusiak** honako hauek dira: PSIKOLOGOAK. Beraiek lagunduko digute proiektua aurrera eramaten eta gazteen eta gainerako jendearen arazo mentalei konponbidea aurkitzen.

Psikologo horiek **eduki profesionala** izateko behar ditugu; izan ere, nahiz eta **esperientzia pertsonalean** oinarritzen diren hitzaldiak ere eman, garrantzitsua iruditzen zaigu gai hauek profesional baten ikuspuntutik azaltzea, beraiek baitira benetan hau ikasi dutenak eta kanpoko ikuspuntu sakon eta argi bat eman dezaketenak. Horrez gain, jakintza profesional horrek gure **proiektuari aberastasuna** eman diezaiokeela uste dugu, jakintza ugaria baitute honelako gaien inguruan eta gu baino hobeago defenda dezaketelako beraien burua..

Hasiera batean, psikologo bakarra kontratatzeke asmoa dugu, gure **beharrak asetu** dezakeen pertsona bat aurkituz; hau da, gazteekin ere aurretiko esperientzia duen norbait, gazteekin enpatizatu dezakeena eta laguntza eman diezaikeena. Oraingoan, bazkide izan gabe kontratatuko genuke, soilik kontratu bat egin daukagun bezero kopuruaren arabera eta bere soldata emanez. Ondoren, proiektua aurrera doan heinean psikologo gehiagoren beharra ikusiko bagenu, hasierako psikologoarekin gustura bagabiltz, bazkide egingo genuke, gure proiektuaren parte izan dadin.